



ARG.: Marsel van Oosten/Wildlife Photographer of the Year 2018

Basabizitzaren urrea agerian

Wildlife Photographer of the Year 2018

Urre-koloreko tximino sudurmotz ar bat harrian eseri da. Berehala batu zaio taldeko eme gazte bat. Adi begira daude biak, beste bi taldetako ar nagusien arteko liskarrari.

Udaberria da Quin mendietan (Txina). Mendi horietan soilik bizi dira tximino sudurmotz hauek (*Rhinopithecus roxellana*), desagertzeko arriskuan. Adarretik adarrera ibiltzen ez dakienarentzat, ez da erraza haiei jarraitzea. Ondo daki hori Marsel van Oosten argazkilariak. Eta zuhaitzetatik jaisten direnean, gutxitan egoten da argi egokia argazki on bat ateratzeko. Oostenek, ordea, tximinoen ilaje eder hori eta aurpegi urdin txundigarri hori erretratatu nahi zituen, nola edo hala. Eta, hainbat egunen buruan, lortu zuen une eta leku egokian egotea. Tximinoen kokapena ezin hobea zen, baita zuhaitzetan zehar iragazten zen argia ere.

Aurtengo basabizitzaren argazki onena izan da, Wildlife Photographer of the Year lehiaketa ospetsuan. Hurrengo orrietan, lehiaketak utzi dizkigun beste argazki eder batzuk.

Urrezko bikotea (The golden couple)

Marsel van Oosten (Herbehereak)





ARG.: Darío Podestá/Wildlife Photographer of the Year 2018

Quickstep argentinarra (Argentine Quickstep)

Darío Podestá, Argentina

Gatz-zelaian gurasoen atzetik korrika bizian doa txita, bere hanka handiekin. Txirriek jaio orduko uzten dute habia, eta hanka luze horiei esker jarraitzen diete gurasoei, eta ihes egiten diete harpariei.

Katu dotorea (Cool Cat)

Isak Pretorius, South Africa

Antzeman zion edatera zihoala, eta leku egokian kokatu zen Isak Pretorius. Han agertu zen lehoi emea belar artetik, dotore.





ARG.: Jen Guyton/Wildlife Photographer of the Year 2018



Basamortuko erlikia (Desert relic)

Jen Guyton (Alemania/AEB)

Welwitschia emearen estrobiloak zerurantz altxatzen dira Namibia basamortuan, polinizatzaileei nektar gozoa eskaintzeko. Landare bitxiak dira. Bi hosto baino ez dituzte, motel baina gelditu gabe hazi ahala zirpiltzen doazenak. Zortzi metrotik gora luzatzera irits daitezke, eta 1.000 urte baino gehiago izatera. Egun osoan basamortuan ibili ostean aurkitu zuen Jen Guytonek “forma egokia eta kolore biziak” zituen metro eta erdiko ale hau. Eguzkia jaisten hasi zenean, lainoek islatutako argiaz baliatuz atera zuen argazkia.

Dolua (Kuhirwa mourns her baby)

Ricardo Núñez Montero (Espainia)

Ugandako Bwindi baso itxian, Kuhirwa gorila eme gazteak ez du bere kumearen gorpua uzten. Ricardo Núñez Monterori gidariek kontatu zioten eguraldi txarra zegoela erditu zenean, eta, seguruenik, hotzez hil zela kumea. Asteetan, gorpua besoetan eraman zuen; txukuntzen zuen, hankak eta besoak mugitzen zizkion... gainerako amek bezala.



ARG.: Ricardo Núñez/Wildlife Photographer of the Year 2018



ARG.: Arshdeep Singh/Wildlife Photographer of the Year 2018

Hodiko mozoloak (Pipe owls)

Arshdeep Singh (India)

Arshdeep Singh aitarekin autoan zihoala, mozolo bat ikusi zuen hondakin-uren hodi zahar batean sartzen. Aitak asko sinetsi ez zion arren, autoa gelditu, eta atzera egin zuten. Berehala ikusi zuten mozoloa hoditik burua ateratzen. Aitari kamera eskatu, eta prest jarri zen Arshdeep. Hamar urte soilik izan arren, bazekien zertan ari zen, sei urte zituenetik ari baitzen hegaztiei argazkiak ateratzen. Mozoloak burua atera zuen berriz, eta haren atzetik besteak.



Lokatza biribiltzen (Mud-rolling mud-dauber)

Georgina Steytler (Australia)

Hegaztiei argazkiak ateratzeko asmoz joan zen Walyormouring Erreserbara (Australia) Georgina Steytler, baina urertzean zebiltzan liztorrekin txundituta gelditu zen. Emeak ziren, eta gogor ari ziren lanean, lokatza biribilduz eta garraiatuz, habia egiteko. Lokatzetan etzan zen argazkilaria, liztorrak gertutik erretratatzeko.

ARG.: Georgina Steytler/Wildlife Photographer of the Year 2018

